

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN INMOBILIARIA, SL 1999-2007 FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Inmobiliaria, SLren (Inmobiliaria) 1999tik 2007rako ekitaldietako fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsia izan da.

Fiskalizazio txostenak legezketasuna berrikusi du ondasun eta zerbitzuen kontratazio gaitan eta ezargari diren bestelako legezko arauen ezarpenean. Halaber, urteko kontuak ezargariak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatu da.

Legezketasunari dagokion atalean, Epaitegiaren iritzira Inmobiliariak ez du 1999tik 2007ra bitarteko ekitaldietan jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen legezko arautegia bete eta hainbat ez-betetze zehaztu ditu.

2007ko urtean Inmobiliariak 1.010 mila euro ordainduta lursail bat erosi du, aukeren azterketarik batere ez dagoela eta erositako lurren tasaziorik egin gabe.

Ez dugu egiaztatzerik izan lau ondasun erosketetan ea publizitate eta lehia printzipioak bete diren, 1999tik 2001eko ekitaldiei dagozkienak, izan ere ez zaigu dagokion dokumentazioa eskuratu. Beste hainbat akats azaleratu dira kontratazioan publizitate eta lehia printzipioak gorde ez direlako edo mugatu direlako.

Honez gain, Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioaren Administrazio eta Finantzen Zuzendariak egindako hainbat finantza inbertsioko eragiketak azaleratu dira, horretarako baimenik izan gabe.

Inmobiliariak Urteko Kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du 2007ko ekitaldiari dagozkieni buruz, aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, mugaketa egin du lursailen egiazko balioari dagokionez, izan ere, aurreko ekitaldietan egin ziren lursailetan kapitalezko ekarpenak kontularitzan horien gaineko balorazio txostenik izan gabe erregistratu baitziren.

1999tik 2006ra bitarteko ekitaldiei dagokienez, HKEEk uste du urteko kontuek ez dutela ez ekitaldi horien jarduera ekonomikoa, ez ondarearen eta finantza egoeraren, ez eta eragiketen emaitzen isla zuzena erakusten eta iritzia txostenean bertan xehetasunez jasotako hainbat salbuespen, doiketa eta birsailkapenekin euskarritzen du.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz eta azpimarratu du Inmobiliariak fiskalizazio-gai izan den aldian, ez dituela barne kontrolerako baliabide eraginkorrak eskura izan, izan ere kudeaketa eta finantza, kontu eta ekonomiaren kontrola eta dokumentazio eta kontularitzako liburuen zaintza zuzena, guztia pertsona bakar batean bildu baititu. Barne kontrol eza hau, gainera, kanpo kontrol ezarekin baterakoa izan da, Inmobiliariari ez baitzaio 1999tik 2006rako ekitaldietan kontuen auditoriarik egin.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas